

TXAPELDUN BATENTZAKO GOMENDIOAK

Partidaren hasieran, erregea babestu behar da oharkabeko eraso guztietatik. Horretarako sistema on bat lehenbailehen endrokatzea da.

Ez atera dama goizegi: atzera egin beharko duzu, arerioak beste pieza batzuk atera bitartean.

Alfilak, aldiz, goiz atera behar dira, eta zure piezak defendatzeko eta arerioarenei eraso egin ahal izateko leku batera eraman.

Zaldiak ere goiz atera behar dira, baina arerioaren alfilen menpean erori gabe.

Eskuratu taularen erdigunea, irabazi nahi baduzu.

Endrokatu egin baduzu, ez izan presarik gazteluak ateratzeko. Batera lerro edo zutabe berean, elkar defendatzen, orduan dute eraso eta defentsarako indarririk handiena.

Irekieran ez galdu denbora pieza bera bi bider mugitzen; lehenik garatu erdiguneko peoiak, alfilak eta zaldiak. Irekierako sei edo zazpi jokaldien ondoren hasten da joko bera, taulako puntu estrategikoak menderatu ostean. Orduan dauka damak eraso-indar guztia, baina une horretan da errazen hura galtzea.

Beraz, ez erreparatu taularen zati bati soilik, eta ez utzi aurrez egindako ideia batek eraman zaitzan, pieza bat mugitu aurretik egiaztatu eramango duzun laukia ez dagoela arerioaren mendean.

Pentsa halabeharrez atzera egiten baduzu abantaila arerioari ematen diozula, hark aurrera egiten baitu zuk atzera egin bitartean.

Saiatu garaiz asmatzen nola erantzungo duen beste jokalaria, eta izan beste jokaldi bat prest hura nahasteko, zure plana asmatu duela uste baduzu.

Bereziki zaindu aurkakoaren zaldiak. Pentsa «bikoitza» egin diezazuketela; saiatu zuk egiten.

Saiatu arerioaren piezak «iltzatzen», eta eginahalak egin tranpa berberean ez jausteko.

«Pieza ukitua, pieza mugitua». Xakearen araudiaren arabera, jokalaria oro behartuta dago ukitu duen pieza jokatzerara, non eta ez duen «atontzen» esan, laukian ondo ez dagoen pieza baten posizioa zuzentzeko.

Pieza eskutik askatu ondoren ezin da berriz hartu askatu aurretik beste leku batera eramateko, baina nahi den lekuan utz daiteke.

Halaber, araudiak dio arerioaren pieza bat ukitzen badugu aurretik «atontzen» esan gabe arerioak behartu egin gaitzakeela hori jaten, jokatzeke gure txanda bada. Pieza jan ezin bada, ukitu duenak erregea mugitu beharko du, eta hori ere posible ez bada, hutsegiteak ez du ondorioz izango.

Arrazoi hori dela eta, xake baten ondorioz, erregea mugitu behar bada, endrokatzeko gaitasuna galduko du.

Joko ona pentsatu (ESTRATEGIA), eta gero egin ezazu, ikasi dituzun gomendio eta printzipio onei segituz (TAKTIKA).